


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko ekainak 18 / III. urtea / 80. zenbakia

Gil Bera, hutsalkeriarik gabeko filosofia

«Jendeari ez zaio sobera atsegina egiten pentsatzea, eta nahiago ditu entretenitzekoak diren gauzak», dio Eduardo Gil Berak filosofiak duen harrera edo oihartzun eskasaz galdetzen zaionean. Hala ere, bera dugu filosofiak eta munduari nahiz gizakiari buruzko galderak irakurterraz egiten dituenaren adibidea. Bere laugarren liburua-rekin —‘A este lado’—, haste-hastetik darabilen kezkari —denborari buruzko azterketari— beste buelta bat eman dio. Askok jotzen dute Euskal Herrian dagoen pentsalari onentzat, eta batzuek bakartzat. Landu ere, euskaraz inork lantzen ez dituen arloak lantzen baititu tuterarrak. Egun buru-belarri itzulpengintzan sartua, ‘Klasikoak’ saileko Montaigneren lanetan, egunerokotasunean itxura problematikoa ikustea dela «zailena» dio. «Nik bakarrik garanti-zatzen ahal dut nere hitz konplikatuaren azpian bada guri egiazki dagokigun zerbait, ez dagoela hutsalkeriarik».



Zubian Barna



BINGEN AMADOZ

Aspaldi honetan krisi gorrian daukagu sozialismoa, behintzat orain arteko bere itxura klasikoan, eta azken hauteskundearen emaitzak ikusi ondoren badirudi euskal abertzaletasuna ere bide bereetik abiatua zaigula. Diruzaletasuna, kontsumismoa, berekoikeria nagusituko al zaizkie elkartasuna, adiskidantza eta elkarren arteko harreman interresgabekoei, hau da gizarteak

denbora zaharretatik horren goxoki eta askotan hainbeste kostata, gorde dituen baloreei?

Gure herria libre eta beste gainerakoen parera igotzea nahi zutenak ahaztu al dira sakonean eta luze mantendutako beren idealetaz telebista espainiarraren jarraitzaile sutsu bihurtzeko? Mementuaren azterketa agian politikariei utzi beharko diegu eta bereziki politikari abertzaleei, jasandako porrotaren zergaitia bilatzea tokatuko zaie.

Dena den, zenbait eskema orain arte osoki sinistu ditugunak aldatu beharrean gaude ziurrenera. Nafarroa ez da batzuk uste zuten bezain eskubitarra ezta Gipuzkoa horren

abertzalea, denok uste genuenaren kontra. Jakina, ez da ezer, txuri, ala beltza oso osorik. Gipuzkoarrak harrituko dira askotan Nafarroan gertatzen denaz. Aragoiko herriz inguratutako Petilla herriko alkateak berea egin du berriki independentziaren erraibindikazioa Euskal-Herri osoarentzat eta berdin egin zuen lehenago Logroño-ondoko Bargetako udal osoak. Kortesen, azpi-azpiko mugetan askotxo dira euskara ikasen duten neska-mutikoek. Biana eta Sartaguda ere muga-herriak dira eta an-

itzekoa gertatzen da. Beharbada batek ez du bestea ekartzen eta euskal-herritarren bihotzak eta eskuak, boto ematen duten eskuak alegia, ez datoz bat. Beharbada, zenbait topiko hausteko mementua iritsi da. Hain eskubitarra atera etzaigun Iruñea gurean inkesta egin da berriki Unibertsitate publikoko

ikasleen artean eta euskara ikasteko asmotan omen dabil haietariko % 17 batek. Beste % 9 batek badaki iadanik eta % 9a ere bada zeozer ikasi edo ikasten ari dena.

Ikastola eta eskola publikoetako euskal adarrak gorantz doaz Iruñerri osoan urtetik urtera eta hortan ari diren COU mailako ikasleek diote, % 97an, euskaraz nahiko lukeketela jarraitu unibertsitate-ikasketak. Beraz ordezkari politikoan galtzen dena ari da nunbait irabazten bestelako arloetan. Hizkuntza aurrera dihoan bitartean ez gabiltza hain gaizki.

Gure aukerak

MUSIKA



E.H. Sukarra zarauztarrak, Barakaldoko Parabellum, Piskerra tuterarrak eta Los Goma Puiuko taldeek joko dute larunbat honetan Tafallan, gaueko 10.00etan antolatuta den gau pasan. Sarrerak 800 pezetatant salzen dira ohizko tokietan eta 1.000 pezetatant takillan. Iruñetik 20.00etan aterako da autobus bat Labriteko aldatetik, eta goizeko 7etan itzuliko da. Izena emateko Iruñeko Katu tabernan edo Zurrunkak disketean eman behar da. Horretaz gain, Zampanzar eta Tafallako zankoak ere izango dira.

ERAKUSKETAK



Bertizko Jaurerian dago ikusgai erakusketa hagitz interesgarria: Natur Zientzien Espainiako Museo Nazionalen dauden adardunak eta adarjeak. Bertan adarrei dagozkien gaiak daude liburu eta karpeta batean bilduta. Izan ere, kultura guztietan, kemen, indarra eta boterea irudikatzen adarren erabilera arte eta literatur lekukotasunak aurkitzea erreza baita.

Euskal Artisten Elkarteari buruz erakusketa ikusgai dago Nafarroako Museoa, ekain osoan zehar. Pinturak dira denak, eta erakusketa Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoa elkarlaguntzat dago antolatuta.

Ximo Amigo artista valentziarrak bertako pilotari buruz pintura erakusketa dauka ikusgai Iruñeko Gotorlekuaren Mistoen Pabilioian. Bere lanek pilotarekin harreman estua daukate, elementu aberats eta ugarien bidez. Bisitatze orduan: 18.30etatik 20.00etara lanegunetan, eta 12.30etatik 14.00ak bitarte jaiegunetan.

BESTELAKOAK



Gamazadari buruz Tuterako Castel Ruiz eta Muga elkarteek antolatuta ekitaldiei amaiera emateko, 'Gens Libera, State' izeneko antzerkia taularatuko da Foruen enparantza gaur eta bihar, ostirala eta larunbata, gaueko 22.30etan. Atzo bertan gai honi buruz mahaingurua izan zen Castel Ruizen eta bertara zegoen iragarrita Jose Angel Perez Nievas, Jose Antonio Asiain, Jaime Ignacio del Burgo eta Patxi Zabalearen partaidetza.

Udaberriko Jira Donejakue Bidean zikloaren barruan, 'K de Calle' antzerki taldea izanen da Torres del Rion, 18.00etatik aurrera. Emanaldia kalean izanen da, eta 'Pasacalles Rojo' izango da taularatuko duten lana.


Goi mailako tontorrek aukeratu ditugu asteburu honetarako, Club Deportivo Navarraren eskutik. Bost ordu inguruko ibilbide honetan zenbait tontor ezagun askoak zeharkatuko dira, Izaba eta Uztarroze bitarteko errepide-raino heldu arte.

Ez da, baina, igandero mendigoizale purustadak egiten dituen horietakoa. Lakartxela franko ezaguna baita, Uztarrozeraino jeitsierak badu berritasunaren xarma. Ohi den bezala, gaur da izena emateko azken eguna, eta horretarako taldeak Iruñeko Jauruta kalean duen egoitzara joan behar da, arratsaldeko 7ak eta 9ak bitarte.

Autobusa goizeko 8etan aterako da Iruñeko autobus geltokiaren paretik, Osasunbidea erai-kinetik, hain zuzen ere, eta txangoak berez, Belagoako Aterpera—egun Angel Oloron Aterpea—heldu baino pixka bat lehentxeago dagoen koartel militarrean izango du hasiera.

Hortik hartuko da Arrakogoitiko leporako bidea, eta maldaga, Ginbeletako leporaino, 1.700 metroan. Arrakogoitik behera Kaketako arrail famatuak bisitatu daitezke, baina hori beste egun oso bateko txangoa da.

Hortik, suabe-suabe, Belaiko leporaino. Hemendik ikusmira



ederra dago bai Mintxaterantz.—Uztarrozera daraman ibar-rantz, hain zuzen ere—, nola Zuberoarantz, Oladubiko amildegirantz.

Belaitik Lakartxelara zuzen-zuzenean garamatzen bidea hartu beharko dugu, eta bertatik dastatu daiteke Belagua gaineko ikusmira ederra, hain bakar eta airoso baitago mendi tontor hau.

Hortik aurrera dena izango da jeistea, lehendabiziz Lapatia lepora, zerbait igo geroago Larron-

doko puntaraino (1.703 metro-tan), eta hortik behera, jeitsiera ederrean, Mintxateko bainuetara lehendabiziz, eta Mintxateko Potxatik Uztarroze eta Izaba bitartean dagoen zerrategiraino ondoren. Hor amaituko da ibilbidea, eta bazkaria Uztarrozen bertan izango da.

Belagua inguruko ohizko ibilbidetik kanpoko aukera oso polita, beraz, ez gogorregia, baina Pirinio mendiek duten erakargarritasun apurrik ere galdu gabe.

ASTEKO PERTSONAIK



Alfredo Jaime
Iruñeko alkatea



Arantxa Lazkano
Zinema zuzendaria



Miguel Indurain
Txirrindularia

Ez da ezer bereziengatik, baina Iruñeko alkateak *in sekulan sekulorum* mereziko luke toki finko bat sail honetan, ia astero sortzen baitu eztabaida eta polemikarako zerbait. Alkateak debekatu egin du Arrotxapeako txupinazoa, intsumiso batek jaurti egin behar zuelako. Jaimeren aginduan zehazten denez, debekua «intsumisioa legez kanpo» dagoelako eragin du alkateak. Txupinazoa erekin batera, rock kontzertuak eta kalean egin beharreko bazkariak ere debekua jarri dizkio eta kontrakoa eginez gero isunak gogoratu ditu idazkian. HBko udal taldeak «masailak gorritzekoa» eritzi dio erabakiari, eta IUrendako «politika atzerakoi honen alde ilunena» dela azaldu du. Taldeok ere kritikatu dute Donibane auzoan txoznak kentzeko erabakia.

Urte ilunak zuzendari gipuzkoarraren lana estreinatu da aste honetan Iruñean, GITE elkarteak eta Golem zinemek antolatuta duten 'Emakumea eta Zinema' zikloaren barruan. Zuzendaria ez baino Klara Badiola aktorea egon zen filmea bota ondoren izan zen hitzaldian, eta pelikula Euskal Herriko haur frankok bizitako esperientziak kontatzen dituela azaldu zuen. «Pelikula amerikarrek haur faltsuak erakutsi dizkigute, baina gidoi hau irakurri nuenean konturatu nintzen benetazko haurrak zirela, eta benetako gertaerak, nik ere egindakoak». Bertan gerra ondoko garaiak kontatzen dira hamar urtetako neska baten begien bitartez, eta Euskal Herriak garai hartan bizi zuen egoera larrien ispilua da.

Eta Mikelone heldu zen. Berrero ere badugu nori erreparatu, norekin lasestu eta zeinekin gozatu, atarrabiarrak Italiako Giroa irabazi baitigu. Urduri geunden denok, «ez dabilela iaz bezala, hi», «Paris-Niza irabazi dik bi urte hauetan, eta aurtun deus ez», «ezkontza eta emaztea izango duk, bestela...». Baina ez, iaz baino hobeki dagoela erakutsi digu azkenean. Ez baitigu huts egiten Mikelonek. Orain Tourra dator, eta horretan bai bete-betean ariko dela. Gainera esan du lehengo urtekoa baino suabeagoa dela... Nork kenduko dio, bada, 'maillot jaune'? Bi suitzar indartsu daudela diote, baina guk kasurik ez. Gu, lasai-lasai, Pariseko Champs Elyseesera heldu arte. Orduan hitz egingo dugu.

AHAZTU GABE!

OSKORRI folk musika talde bizkaitarrak joko du asteburu honetan Altsasuko Burunda pilotalekuan, Nafarroa Oinez 93rako antolatuta den programazioaren barruan. Folk kontzertua gaueko hamarretatik aurrera izango da, eta bertan 'Ba dok hamahiru' Oskorriren azken disko bikainen agertzen diren kanta berriak zein aspaldiko kanta zaharrak entzun eta gozatzeko parada ederra izango da. Gogoratu behar da urteak badi-rela Oskorri musika taldea Burundako herrira heltzen ez zela, eta bizkaitarren kontzertuak ikusmin handia sortu du bertan.

Nafarroa Oinez inguruan esan beharra dago, antolatzaileek gezurtatu egin dutela Carbonilla festetakoek uko egin ziotenik Nafarroa Oinez kamisetak saltzeari, herrian zenbait zurrumurru zabalduak baitziren horren inguruan. Euskararen aldeko festaren antolatzaileek azaldu zuten, festak baino lehenago ez da harremanik izan bi elkarten artean, «beraz nekez egin diezaiokegu muzin horri» azaldu zuten.

Nafarroa Oinezekoek ere ez zioten iritzi oso komenigarria postua bertan paratzeari. Gaizki ulertuak konponduak,

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarriketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

HERRIZ HERRI Xorroxin Irrati

tiko saioa programazioaren izarra bilakatuko da heldu den astean zehar. Astelehenean kirolari eskaintzen zaion tarte berezian, hurrengo igandean Lesakan jokatu den 600 kilometroko mailako soka-tira txapelketaren berri. Asteartean ekonomia eta gizartearen inguruko aferak izanen dira aipagai, eta asteazkenean Etxalarko gasna lehiaketaren inguru- minguruak.

Gazteentzako kirol ekitaldiak euskaraz

ARANTXA AGIRREURRETA / IRUÑA

Gazteek giharrak euskaraz landu ahal izango dituzte aurtengo udan Sakanan, Mankomunitateko Euskara eta Kirol zerbitzuek antolatutako, 15 eta 30 urte bitartekoentzat hainbat kirol aktibitate prestatu baita. Mota guztietako ekitaldiak, eskeintza zabal baten barruan, eta ekitaldi guztiak euskaraz izango dira. Mankomunitateaz gain, Urdiain, Etxarri-Aranatz, Arbizu eta Lakuntzako udalek hartu dute parte ikastaroen antolakuntzan.

Ekitaldiak uztailaren 12an hasi, Izurdiagan egingo den piragua ikastaroarekin, eta irailaren 20tik 25era amaituko dira. Arakil-Uhartan eta Eginon izango diren eskalada ikastaroekin. Kontuan hartu behar da hainbat ekitalditarako tokia mugatua dagoela, eta beraz, lehenbailehen eta jarritako epearen barruan izena ematea komeni dela. Epea ekitaldia hasi baino aste bat lehenago amaituko da.

Lau dira ekitaldi hauek: mendi txirrindularitza, piragua ikastaroa, eskalada ikastaroa, mendi ibilaldiak eta hipika ikastaroak. Mendi txirrindularitzaren barruan, abuztuaren 1ean izango da lehen ateraldia, Urdiaingo inguruetara. Abuztuaren 22an Etxarri-Aranatzko inguruak ezagutzeko parada izango da, eta irailaren 4 eta 5ean, Urbasan barna joango dira.

Piragua ikastaroa uztailaren 12tik 16ra bitarte egingo da Izurdiagan, eta eskalada ikastaroa irailaren 20tik 25era, Arakil-Uhartan eta Eginon. Mendi ibilaldiak uztailaren 24ean hasiko dira, Berriain mendian, eta bigarren irteera abuztuaren 20an izango da, Aizkorriara.

Bestalde, hipika ikastaroak bi izango dira. Lehendabizikoa uztailaren 26tik 30era izango da, Etxarri-Aranatzan, eta bigarrena abuztuaren 9tik 14era, Altsasun izango da.

Toki bakoitzean kontaktuak, izena emateko hauek dira: Urdiainen, Javi Zelaia: 56 23 65 telefonoan; Etxarri-Aranatzan, Jose Martin Karrera: 46 05 00; Arbizun, Jesus Mari Mendinueta: 46 08 33 telefonoan edo Argi-Bidea elkarteak; Lakuntzan, Karmele Gil: 57 62 32, Unai Razkin: 57 62 88 edo Biltoki Elkarteak. Horretaz gain, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzura (46 07 51) edo Sakanako Kirol Zerbitzura (46 08 59) ere jo daiteke.

Beraz, txalupetan kulunkatuz, zaldi gainean nekatu edo harkaitzetan zintzilikatu eta, bidenabar euskaraz egiteko gogorik baduzu, udara honetan badago nora jo.



Ekitaldi guztiak euskaraz izango dira.

Iruña

'Kili Kili' aldizkariaren sariak banatu dira

IRUÑA

Joan den larunbateko 'Xinguli Mangulu' Euskalerrira Irratiko saioan ezagutzera eman ziren 'Kili Kili' aldizkari bizkaitarrak antolatutako 'Ezetx Igarri?' izeneko sariak nagusiki aurtengo irabazleen izenak. Lau bizikleta banatu ziren Nafarroako hurrengo neska-mutiko hauendako: Idoia Marques Iturria, Tafallako ikastolako; Amaia Olondriz Garaikoetxea Elbetekoa (Elizondoko Ikastetxea), Jon Ander Zubillaga Beunza Lekunberrikoa (Larraun Ikastetxekoa), eta Ibai Zabaleta Ibero iruindarra, Paz Ziganda ikastolako azken hau.

Sari nagusi hauetaz gain, beste 89 gaztetxo nafarrek sari berezi bana jasoko dute, eta Nafarroan 'Ezetx Igarri?' sarietan parte hartu duten guztiak —3.450 izan dira oro har—, 'Kili Kili' aldizkariaren harpidetza izango dute sarritzat. Euskal Herri guztian 12.000 inguru haurrek hartu dute parte lehiaketan.

'Kili Kili-ko' arduradunek adierazi dutenez, sariaketa hau «aitzakia besterik ez» da euskarazko irakurgaiak ume eta gaztetxoek eskuetara heldarazteko. Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du 'Kili Kili' aldizkariak.

Larrasoaina

Esteribarko Eguna asteburuan

P.U. / IRUÑA

Esteribarko Eguna ospatuko da igande honetan, Nafarroako ia bazter guztietan zabalduz joan den ohiturari ere bertan eusteko. Goizeko bederatzieta, horrela, argi soinuak izanen dira Eugi, Zubiri eta Larrasoainen, Uharteko gaiteroekin. 10.00etan txirrindulari ibilaldia izanen da Esteribarren zehar (Eugi-Zubiri-Larrasoain), eta 11.00etan meza izanen da Larrasoainen.

11.00etatik 14.00etara Eskulangileen Erakusketak ikusi ahal izanen da, eta eguerdi partean haurrentzako jokuak 'Trinkete' taldearekin. Ordu berean, berta-

ko gazta eta txorizua dastatu ahal izanen da, eta 13.00etan herrikirola, aizkora apostu batekin: Mindegia-Telletxea, Enkabo-Senosiainen aurka.

14.30etan bazkari herrikoa Irunberriko txarangak antolatutako, eta bazkalondan bertsolari eta trikitixa ariko dira bertaratutakoak jostatzen. 19.00etan izanen da eguneko ekitaldirik erakargarrienetakoa, Luzaideko bolanteen ekitaldia izanen baita. 20.00etatik 24.00etara, eguna bukatzeko, dantzaldia izanen da herriko plazan, 'Jator' taldearekin. Eguna osoan zehar Irunberriko Txaranga herriko kaleetatik zehar ariko da.



Ibarretako egunak gero eta ugariagoak dira.



ETXALARren ospatu zen joan den igandean bertako ardi gasna bigarren lehiaketa eta Arizkungo Amaur elkarteak suertatu zen irabazle. Bertara 29 artzain azaldu ziren, horietariko 14 Bortzirietakoak, sei Baztangoak, zortzi Malerrekakoak, eta bat Leitzaldekoa. Bigarren saria Arizkunera ere joan zen, Felisa Irungaraik eskuratu baitzuen. Hirugarrena Lizun sunbildarrak eskuratu zuen. Egun berean, Castora Agesta gorugileari omenaldia egin zion Altxata Elkarteak. Omenduak zenbait opari jaso zituen eta auresku bat dantzatu zen bere omenez.

INDURAINen ospatuko da heldu den larunbatean Izagaondoko Eguna, eguerdian izango den mezarekin hasiko dena. Ordubetan agure eta zaharrei omenaldia eta agurra egingo zaie, eta ondoren herri bazkaria. Arratsaldean zenbait ekitaldi izango dira, eta arratsaldeko zortzi t'erdietan hasiko da dantzaldia, 'Master' orkestrarekin. Gaueko hamarretan zezensuzko izango da, eta ondoren afaria. Eguna goizaldera arte luzatuko da dantzaldia bitartez.



TUTERako Foruen Plazan egiten ari diren lanak enara azpizuria txoriaren ugalketarako «kaltegarri oso» direla salatu berri du bertako Landazuria talde ekologistak. Kalteak, hain zuzen ere, lanak garai honetan egietagatik izan dira, eta kumeak egiteko garaian zeuden txori asko desagertu, eta kumeak eta arraultzak hil egin direla azaldu du Landazuriak. Nafarroako Gobernuak onartu berri duen zerrendaren arabera, espezie honetako ale bakoitzaren kontrako eraso bakoitzeko 3.000 pezetako isuna dago ezarrita, eta talde ekologistak norbaitek horren ardura har dezan eskatu du.

ZENTRONIKOko UGTK Goardia Zibiliaren jarrera salatu berri du, Nafarroan gero eta ohizkoago egiten ari diren protestei jarraiki. Kasu honetan, pikete informatibo batean goardia zibil batzuek iraindu eta kolpatu egin zituztela bertan zeuden langileak salatu du UGTK. Bitartean, paisanozko beste agente batzuek argazkiak atera eta piketen zeudenen kotxeen matrikulak apuntatzen zituzten.



A. BARANDIARAN / NARBARTE

Tuteran jaioa baina txikitandik Elgorriagan eta gero Narbarten bizi izan den autodidakta hau gaur egungo euskal pentsalari garrantzitsuenetakotzat jo dute askok bere lehen saiakera duela sei urte atera zuenetik. Ordutik hona beste hiru saiakera, denak gai berberaren inguruan: denbora. «Hori baita bakarra», dio berak.

Bere azken liburua fisika arloan metafisika baztertzeko ematen ari diren pausoei jarraitzeko filosofian izan den «lehen saiotzat» jotzen du, eta aldaketa hori «funtsezkoa» izango dela azpimarratzen du. «Behiala gizakiak ez zion erreparatzen denborari, espazioari baizik. Nekazari bihurtzean, baina, denborak hartu zuen garrantzia, eta horrek mentalitatea aldatu zuen. Hori dela eta, gugandik urrunago gaude ordukoak baino, baina mentalitate hori aldatzeko lehen urratsak ematen ari dira».

EGUNKARIA.— 'A este lado' liburuan, aurreko saiakerarekin alderatuz, gai berbera jorratzen duzu —hau da, fisika eta filosofia—, baina planteamenduak asko aldatzen dituzula aipatu duzu. Zertan dira aldaketa horiek?

EDUARDO GIL BERA.— Bai, planteamenduak zerbait aldatu dira liburu honekin, baina gai guztien azpitik doan hari baten inguruan: denborarena. Edozein gai ukitututa beti agertzen da, nere irudikoz bederen, eta hori da, gainera, gehien interesatzen zaidana. Errepikatzen dira hemen ideia batzuk, hasieran liburua 'Fisikaz honatago' saiakeraren itzulpena baitzen. Hori, baina, abiapuntua izan zen liburua egin baitut espreski diferentea, dena birplanteatzeko.

EGUNKARIA.— Baina benetan birplanteatu egin duzu dena, edo ildoari eutsi diozu?

GIL BERA.— Dena izan da aldaketa, bai moduan eta baita edukinean ere. Fisika arloan munduan agertu den Ilya Prigogine bezalako pertsonaiarik ez da, nere irudikoz, agertu filosofian. Eta gaia hain garrantzitsua izanik ere, oraindik ez gara konturatu, baina gertatzen ari da aldaketa Kopernikarra, hagitz inportantea. Filosofian, berriz, segitzen dute linguistikak balira bezala, lenguaia dela kulpablea, eta horrelako gauzak erraten. Hortaz, liburu honetan salatzen dut nik metafisika hori. Salatzen dut ezdeusa, alferria eta hutsala den neurrian. Hala ere, nik ez dut jorratzen fisika. Bakarrik erraten dut fisikak ez duela kontuan hartzen denbora, erraten baitu hori dela giza ilusio bat, eta hori, nere irudikoz, da... Ez zaigu kaskoan ere sartzen giza zientzia batek —zientzia guztiak baitira giza-zerbait— horrelakorik erratea. Justuki Prigogine honek erraten du ezetz, denbora existitzen dela. Erran nahi da horrekin gauzak aldatzen direla bueltarik gabe, irrebertain.

Denbora, denbora eta denbora. Horixe da Eduardo Gil Beraren azken liburuaren gaia, aurrekoetan bezalaxe. Saiakeragile, itzultzaile eta pentsalariak fisikan ematen ari den aldaketa eraman nahi izan du filosofiara, Euskal Herrian inor gutxik jorratzen dituen gaietan buru-belarri. Benetako filosofo eta pentsalari bakarra baitugu, akaso.

Denboraren kezka

bilitatea existitzen dela. Planteamendu berri hau gertatzen ari da fisikan, orain argitaratzen ari diren gauzetan. Aldiz, filosofian ez da horrelakorik izaten. Metafisika erraten denean, erraten da: fisikaz haratago. Horrek ez du buru-buztanik.

EGUNKARIA.— Prigogineri esker fisikan ematen ari den aldaketa horretaz konturatzen hasia da jendea?

GIL BERA.— Prigoginek fama handia du, Nobel Sariduna izan baitzen 1977an, baina kimika eta fisika arloan. Eta berak aipatzen du filosofia, eta bi arloen artean orain arte izan den dibortzioa. Eta gaia betikoa da, eta edozein filosofok badu zer erranik denborari buruz, baina oraindik ez dira ohartu proposamen honen saktasuna zertan den.

EGUNKARIA.— Eta horretaz ohartuta, norantz joko du filosofiak?

GIL BERA.— Metafisika uzterat. Metafisika eskolastika hutsa. Er-

di Aroko kontu bat da, eta gaurko egunean hitzontzikeria hutsa da. Nik ez dut hori onartzen. Horrek ez du erran nahi gauzak simpleagoak direla edo. Gauzak hagitz konplikatuak dira, eta irakurlearen aldetik eskatzen da ez jarrera pasibo bat, behar baita zerbait. Nik bakarrik garantizatzen ahal dut nere hitz konplikatuaren azpian badela egiazki guri dagokigun zerbait, ez dagoela hutsalikerarik.

EGUNKARIA.— Hala ere, filoso-

Euskararen baitan badaude arrasto batzuk lehengo mentalitatea espaziala eta ez denborazkoa zela frogatzen ahal dutenak».

fia oraindik urrun samar dago jendearengandik. Gai franko konplikatuak bezala ikusten da. Zer da, berez zaila dela, edo ez zaila behar bezainbeste arreta eskeintzen?

GIL BERA.— Gehienetan, pentsatzea ez baita sobera atsegina inorendako. Jendeak nahiago du entrenituzkoa den zerbait. Beti ere, gauza hauetan zailena izaten ahal da eguneroko gauzetan ikustea egiazki badela itxura problematikoa. Egunerokotasun horretan problema bat ikustea —demagun, denborarena—, eta planteatzea, eta hari buruz galdetzea, hori da egiazki zailena. Eta nire xedea da liburu hau irakurri eta gero ohartzea egunerokotasun horretan badela zertaz galdetu.

EGUNKARIA.— Euskal Herrian izan dira eta badira pentsalari eta filosofoak, baina gaur egun behintzat jorratzen diren gaiak ez dira hauek, zuk aipatzen dituzun egunerokotasunekoa, gizaki

orori dagozkion arazoak, euskal gaietan zentratuagoak baizik.

GIL BERA.— Nik uste dut —ezin ziurtatu, baina— ez dela euskal muga bat pentsamenduan, ez dela erraten ahal «hemendik harat hasten da euskal pentsamendua», edo «euskal pentsalariak erraten dutena...», hori ez da existitzen, euskal pentsalariak ez dute ezer berezirik erraten, ezta frantses pentsalariak ere, adibidez. Horretan, nik uste dut ez dela erraten ahal 'euskal filosofia' edo 'euskal pentsamendua'. Justuki liburu honetan frogatzen baitut lehengo mentalitate espazialatik nola pasatu den denborazko oraingo mentalitate honetara. Eta aipatzen dut eredu bezala euskara, euskara baitan baitaude, nere irudikoz, lehengo mentalitatea espaziala eta ez denborazkoa zela frogatzen duten arrasto batzuk. Hori izan da aldaketa hori izan zenetik sortu baita mendebalde, perspektibarik gabeko pentsamendua. Eta lehengo pentsamendu horretan existitzen zen perspektiba. Euskararen baitan ikusten ahal da, eta ikusten ahal da euskal berezitasun bat bezala, baina baita giza berezitasun bat bezala ere.

Izan ere, Gil Berak, bere azken liburuan, zenbait euskal aditek duten orijinaltasunari erreparatzen dio beste garai batean denboraren beste kontzeptioa ze-


goela baieztatzeko. «Euskarak baditu zenbait aditz» dio Gil Berak liburuan, «hala nola izeki, irakin, jarraiki, etxeki, iraun, erantsi, jazarri, eragon (...), zeintzu denbora oinarritzko kategoria bezala hartu baino lehenagoko iriak diren». Idazlearen ustetan honek esan nahi du aditz hauek espazioari eta ez denborari dagozkiola. «Irakiten ari den likidoak zerbait altxatzen du: 'horrek diraki'; suak zerbaiti heltzen dio: 'horri suz badizeka'; haizea edo elurra ari duenean, zerbait zerbait sortzen du eta jarraitzen duena zerbaiti dagokio, jarraitzen zaiona bigarren mailan dagoelako: 'hari darrika'». 'Zerbait' horren presentzia azaltzeko hipotesi bakarra, bere ustetan, espazioarena da.

EGUNKARIA.— Eta hortik ondorioztatu daiteke hizkuntza bat komunikatzeko tresna ezezik zerbait gehiago ere badela?

GIL BERA.— Ez dut uste. Euskararen baitan gelditzen diren arrasto horietaz inor ez da kontziente. Beraz, horrek ez du esan nahi euskaraz gauzak hobeki edo zehazkiago erraten ahal direnik.

EGUNKARIA.— Eta ez al da harritzekoa gai hauek hain jende gutxik jorratzea?

GIL BERA.— Ez, hori ez da harritzekoa, Espainian berean edo Frantzia gauza bera da. Egutero ez da betiko gai bat modu berri batez tratatzen, hori ikusten ahal da egutero publikatzen diren liburuetan.



Montaigneren itzulpenaren lehen liburua kalean, bigarrenean ari da egun Gil Bera.

«Gu gara, ez baita gutti»

A.B. / NARBARTE

Narbarteko bere etxean, patxada ederrean, Montaigne filosofo frantziarraren itzulpenean buru-belarri dago sartuta egun. 'Klasikoak' izeneko sailaren barruan atera beharreko bigarren liburua prestatzen. Egitasmo horren inguruan, kanpoko egileei atxikitzeak euskarari baino euskalduneri egingo diela mesede uste du, «euskara abstrakzio bat baita».

EGUNKARIA.— Non zaude eroso: saiakerak egiten, itzultzen, poesia egiten?

EDUARDO GIL BERA.— Momentu honetan ni hagitz gogotik eta gustura nago Montaigne itzultzen. Hori izan zen aspaldiko nere asmoa, eta ezagutzen nautenak badakite hori. Eta orain Montaignekin ari naiz arras kontent. Nik uste dut itzulpengintza hagitz gaur inportantea dela gure ar-

loan. Lehengo egunean aritu nintzen komentatzen lagun batekin honetaz, eta berak erraten zidan ez zela fidatzen euskaraz egiten diren itzulpenez, eta «porsia-kaso», nahiago zuela originalak eta ikusi. Eta izaten ahal da mesfidantza sano bat, baina zergatik bakarrik euskaraz? Nik erraten nion «zenbat gauza irakurri duzu espainolez? Homero ez duzu adibidez irakurri grekeraz, edo Lord Byron ingelesez»...

EGUNKARIA.— Baina mesfidantza hori normala da, ezta?

GIL BERA.— Baina zergatik euskaraz? Zergatik ez denen baitan? Nik badut liburu bat Jungerrena, espainolez agertu ez dena, hagitz inportantea. Mende honetan merezikio balute gordetzea, demagun, lau liburuk, haietarik bat, nere irudikoz, izan behar zen hori. Espainolez ez dago itzulita, eta frantsesez bai. Nik ikusi dut edizioa, eta alemaniarrekin kon-

paratuta hori da, garbi errateko, 'ganberrada' bat. Falta baita liburuaren erdia eta gaizki itzulita baitago. Eta frantsesei irudituko zaie direla, ez dakit zer... Ba, naraskeria bat da. Orduan, mesfidantzak sanoak lirateke denei buruz balira, ez bakarrik euskararen baitan. Beti ari gara pentsatzen azken tximinoak garelako eta horrelako gauzak.

EGUNKARIA.— Uste duzu, beraz, gehiegi exigitzen diogula geure buruari?

GIL BERA.— Ez, gehiegi ez, baina etortzen da jende asko interesatzena egiten: «Zeinen listoa naizen, ez naiz fidatzen euskal itzulpenez». Eta beste muturra da konplexua izatea, «ze tontoak garen» esanez. Eta frogatzen ahal da erraz, nola espainolez eta frantsesez eta edozein hizkuntzatan gertatzen direla marro eta tranpa horiek.

EGUNKARIA.— 'Klasikoak' ize-

Nik ez dakit euskarari buruz hitz egiten ahal den. Euskarra abstrakzio bat da. Benetan existitzen direnak dira euskaldunak».

neko sail honi esker, euskarak galdutako denbora berreskuratuko al du?

GIL BERA.— Euskaldunak, bederen, izan du bide bat klasikoak ezagutzeko. Ez baita gutti. Baina euskarak zer irabaziko duen... Nik ez dakit euskarari buruz hitz egiten ahal den. Euskara abstrakzio bat da. Egiazki existitzen direnak dira euskaldunak, eta hor badute bide bat.

EGUNKARIA.— Azken urteotan badaude inoiz baino idazle eta liburu gehiago. Kantitatearekin batera dator kalitatea?

GIL BERA.— Liburu aunitz badira espainolez eta frantsesez ere, baina hiru laurdenak kaka hutsak dira. Eta euskaraz ere, hiru laurdenak, hor nonbait. Baina ez da oso normala hemen gertatzen dena. Adibidez, nik ikasten badut alemaniera, eta hasten banaiz alemanieraz izkiritzen hori izanen litzateke irringarria. Gauza bera da norbaitek euskara ikasita, egiten du filologia, eta deskolga-tzen bazaigu poemario batekin. Hori ez da gertatzen munduko inongo kulturetan. Beti ere, liburu aunitz eta zabor asko, hori gertatzen da edozein hizkuntzatan. Eta kakak ez aipatzeko, gure artean badira idazle apreziaztekoak, eta hagitz onak, euskal sena dutenak: Patziku Perurena, Koldo Izagirre...

EGUNKARIA.— Mazantini literatur aldizkarian eta Pamielan ere egiten duzu lan. Batzuetan Kixotearena egiteak zer sortzen dizu?

GIL BERA.— Batzutan amorru pitin bat eta bestetan ilusioa. Mazantini aldizkari bat da, baina ez dugu kargatu nahi literatur etiketa horrekin. Beste gisako zerak ere sartzen dira: itzulpenak, sormen lanak... Gauza hauetan, bereziki mundu honetan, hain tipia denez, hain errepublika ttikia denez Euskal Herria, aunitzetan komeni da anakronismo batekin jokatzera, zure burua salbatzeko. Eta Mazantininen kasu honetan —ez beti, eta ez aldiro—, jokatzeko dugu anakronismo horrekin. Eskaparatea nonbait ere osatzea komeni da. Burua sano mantentzeko eta perspektiba sobera ez galtzeko.

EGUNKARIA.— Euskal Herrian sinets daiteke?

GIL BERA.— Existitzen da euskal komunitate bat, berez. Problematikoa litzateke komunitate hori definitzea, baina Finlandia definitzea ere! Hagitz arriskutsua litzateke, baina euskal jendea existitzen da. Etorrizunari buruz, nik ez dakit zerbait borobilduko den, gauzatuko den, baina hemen dago, gu gara, ez baita gutti.

«Egunerokotasunaren problema bat ikustea —demagun denborarena—, eta planteatzea, eta hari buruz galdetzea, hori da egiazki zailena, eta nire xedea da ohartaraztea horretan badela zeren galdetu».

JOXE LACALLE

Gazteendako Zokoa



XAKEAN

Udaberri Txapelketako 8. Jardunaldiko partida, 1993ko maiatzaren 12an jokatu. J.J. Mingdia (1.865 ELO) Alfonso Cemborainen (ELOrrik gabea) aurka.

1.e4,c6; 2.d4,d5; 3.f3,e6; 4.Ze2,c5. Jokaldi hau ez dago lotuta egindako lehenengoarekin. Beraz, denbora bat galdu du. 5.c3,d4; 6.d4,Zc6; 7.Ae3, Ad6. Bete denbora bat galtzen du, txurien peoia aurrera joatea erraztuz. 8.e5,Ab5 xa; 9.Zc3, gZ-e7. Egokiago zen 'f6', erregearen peoia mutur horretatik kentzeko. 10.Zg3,Ad7. Joko gutxi du alfil honek. 11.Ad3,0-0. Oso arrisksua, txurien piezak alde horretan daudelako, eta beltzenak beste aldean nahiko itxita. 12.0-0, Zg6; 13.f4,f5. Alfila c3-ko zaldiaren truke aldatu balu piezak pittin bat askatuko zituen, defentsa lana hobeto antolatzen. 14.f6,Df6; 15.f5,Ze7; 16.Zh5, Df7; 17.f6,Zf5; 18.g7,Ge8; 19. Ag5,Ae7; 20.Ae7,cZ-e7; 21.g4, Dg6; 22.Eh1,Ze3; 23.Ag6,Zd1; 24.Af7 xa mate. Erregearen alde horretan piezen nagusitasunak, txuriak arrakastara eramane zituen. Beltzentzat, ikasi beharreko ikasgaia.

Bertsoak

Udalekuak edo kanpaldiei buruzko bertsoak. Iruñeko Bertso Eskolan abestutakoak.

Bostgarren kanpaldia egin dut nik aurten etxetikan urrutu pozik gara irten ongi pastu dut bertan futboleak jolasten eta askoz hobeto gaupasa egiten

Kantatuko dizuet guztia nola dan ez da inor gelditu lan egiten gela baina egon seguro parranda ez dela han nahiz kanpaldia izan egin bait dugu lan

Joanes Arrizabalaga

Borda Txiki

MAITE AGIRRE

Udako egun eder horietako bat zen, Gaztañaga tabernaren terrazan eserita geunden 10 lagun, nahiko aspertuak gainera. Halako baten non saltatzen da Estitxu, joango al gara hurrengo larunbatean Borda Txikira? Guk baietz esan genuen, ez bait geneukan ezer interesgarriagorik egiteko. Beraz ostegunean erosketak egin genituen zortzi lagunek.

Larunbata iritsi zen, eta nere lagun baten aitak igo zizkigun erosketak, gu oinez igo ginelarik. Bordara iritsi bezain aguro garbitzen hasi ginen, gauzak bere lekutan jartzen eta abar. Gazez hotza egiten zuzenez sua egin genuen eta larunbata horrela igaro genuen. Igandean 12etan jeiki ginen, oso eguraldi ona zegoen, eta gosaldia bezain aguro lentejak egosten jarri genituen. Eta bigarren platera oialako prejitua patatakin egin genuen. Gure taldeko mutil batzuek esan ziguten gau batean azalduko zirela, susto bat eman bitartean. Eta horrelaxe egin zuten. Astelehena zen eta afaltzen geundean azalduko zitzaizkigun. Asko bildurtu ginen, baina zer egin genezakeen?

Afaldu ondoren etxe aurrera atera ginen, ilargi bete zegoen eta zerua izarrez estalita. Zoragarria zegoen inguru guztia. Baina bat-batean sua ikusi genuen gure aurrean zegoen mendi batean. Bildurtu egin ginen, sua oso arrisku-

tsua baita. Guk norbait esan behar geniola uste genuen, baina gure inguruan ez zegoen inor. Lasterka hasi ginen herriko bidean eta baserri batera iritsi ginen. Zakurrak zaunkaka hasi zitzaizkigun, gero sukaldeko argia itzali zen eta hori gutxi ez bazen bezala kate soinuak atera zituzten. Bildurtu eta itzuli egin ginen. Bidean gindoazelarik begi txuri piloa ikusi genuen. Artzain bat atera zitzaigun lasai egoteko esanez, ardiak zirela eta ez zigutela ezer egingo.

Sua ikusi genuela esan genion, baina bera ez zen beldurtu, guregana ez zela ailegatu eta. Gaur ederra zegoenez, kanpoan eseri ginen berriro. Eta bost minuturen inguruan kotxe bat somatu genuen. Kotxea hura pistan gora zetorren, Borda Txikiren gainekaldetik. Handik gutxira buelta emanda beherantz etorri zen, gu nora zioan begiratzen geunden, eta hara non Borda Txikiko pista hartzen duen.

Bordara igotzeko belatso bat zeharkatu behar da, eta gainera kotxea igo daiteke baina nahita ez zuten igo gu ohart ez gintezen. Guk beheko pistan pertsonak ikusi genituen kanpoko gauza guztiak hartu eta barrura sartu ginen. Lehiotik begiratu genuen eta norbait ikusi genuen baina ez genuen ezagutu zein zen.

Bat-batean atean kan, kan jo ziguten eta orduan denak oihuka hasi ginen, niri Aingeruren ahotsa iru-

ditu zitzaidan baina hala ere ez nengoen oso zihur. Azkenean beraiek zirela esan ziguten eta orduan ireki genien atea, bost lagun ziren: Daniel, Jaione, Xabier, Aingeru eta Jon. Beraiekin hiru ordu edo horrela egondu ginen eta aldegin zutenean kristoren hutsunea sentitu genuen. Hitz egiten bostak arte egondu ginen eta gero oheratu ginen. Hurrengo egunean kristoren farrak egin genituen Maria nere lagunarekin, zern Borda Txikiren aurrekaldan ataka bat dago eta berak esaten zigunez gero eskuarekin ikutu gabe saltatzen zuela, guk orduan erakusteko esan genion, eta dunba lurrera erori zen, gu orduan farrez hasi ginen.

Bazkaltzeko ordua ailegatu zen: makarronak, arraultza patata prejitu eta piperrekin. Arratsaldean Borda guztia txukundu genuen eta etxerantz abiatu ginen. Borda Txikitik kamiora aldapa beheara de xente dago eta noizbait ailegatu ginen, han ezagunen bat pasatzen zen itxarotzen gelditu ginen. Furgoneta bat pasatu zen eta denak batera ekarri gintuen Leitzara.

Leitzara seiretan ailegatu ginen eta etxera ongi afaltzera joan ginen, hala ere bederatzietan geratu ginen kanpora ateratzekotan, Gaztañagan geratu ginen eta beste gure lagunei gertatutako guztia kontatu genien. Orduan farra egiten genuen baina Borda Txikien ez genuen farra handirik egiten.



Dos Hermanas/Biaizpe/Axitarte

Autobia zela eta, aho guztietan izan zen izen hau. Erdaldunek ez zuten arazorik izan eta *Dos Hermanas* erabiltzen zuten polemikak iraun zuen bitartean. Euskaldunok berriz hiru izen genituen aukeran: *Dos Hermanas*, *Biaizpe* eta *Axitarte*.

1/ *Dos Hermanas*. Haitzei eta harrateari bertako euskaldun guziek *Dos Hermanas* esaten diete euskaraz ere. Toponimia Taldeak ez zuen besterik aditu, Sakanan, Larraunen eta Imotzen luze galdezka ibilita ere. Dena den, sineskaitza suertatzen zitzaigun euskal izenik ez izatea hain garrantzitsua zen harratea izendatzeko. 2/ *Biaizpe*. Larraunen *Bi Aizparen* aditzera zerbait bazutela esan izan ziguten herriren batean, baina beti erantsiz hori ez zela haien ustez izen benetakoa, hobe beharrez itzulua baizik. Esapiderik usuena hau izan zen: «Bai, orain Bi Aizpa esaten diote baina hori ez da izena». R. Carasatorrek esan zigun baten bati *Aizpea* aditua ziola Etxarri-Aranatzen baina, haren ustez erabilera franko bortxatua, bertakoei berez dariena *Dos Hermanas* baita. 3/ *Atxitarte*. Urritzolako Bautista Etxarreni *Dos Hermanasi* nola zeritzan galdetu genituen, *Axite* eta *Axitarte* biak eman zituen, bereizketarik egin gabe. Orain, berriz, badakigu haitzen azpiko Irurtzun alderako paraje horri, batere dudarik gabe, *Axita* esaten zitzaiola. Kike Diez de Ultzurrunek esan zigun, informante berari geroztik egindako inkesta batean, *Axitarte* ibaiaren inguruneari esaten ziola Bautistak, ermita eta zentrala dauden tokiari. Izena, hala ere, ahaztuxego dago eta informante bakar batek eman zigun euskaraz (gaztelaraz *Ajita* eman zigun Irurtzungo idazkariak).

Izen hau esanahiaz den bezain batean lehenbizikoetan ez dago arazorik. *Biaizpe* eta *Dos Hermanas* izenek haitzei dagokie dudarik gabe. Gainera esan izan da euskaldunek *Aizpe* ziotela, hots, zuloari eman ziotela izena, eta handik, gaizki erakarrirako itzulpen batean, inguru hartan *ahizpa aizpe* ebakitzen baitute, gaurko izena sortu zen. Baliteke, baina ez du pasatzen beharbada baten muga. *Axitarte* berriz *Axita* eta *artez* osatua genuke, *Axitako Harratea* adierarekin P. Salaberrik ohartarazi zigun bezala. *Axita*, berriz, aspaldidanik dokumentatu arren iluna zaigu. *Castellum de Ayçita* dugu 1210. urtean (Orreagan ere, *Ayçita* berroa 1284).

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak

Peligro Benta (IV)

Bakar-bakarrik lo egiten duelako, ura hormaturik izartzen da. Orain bahituko banindu, ez nintzateke garrasika hasiko.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheto taula osatu ondoren Baztanen jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.

1. Tentakulo

2. Behiaren ar

3. Ziri

4. Guztiz eskasa

5. Nerea

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A										
B										
D										

B	8	A	1	D	1	D	8	A	3	
D	6	D	2	A	5	A	8	B	6	
B	1	D	10	A	4	B	9	D	3	
B	2	B	3	A	6	A	2	B	10	D
A	9	D	9	D	7	A	7	B	4	B

Bizi Bizian

Sarritan ikusi ohi dugu, euskaldun petoak diren hainbat eta hainbat herrik, pixkana-pixkana erderara jotzen dutela. Iritzi desberdinak izaten ahal dira, baina gauza bat

argi dago, euskalduntze prozesuan instituzioek sartu behar dute derrigorrez. Hori da, hain zuzen ere, Bortzirietako Euskara Zerbitzua egiten saiatu dena, traba gutxi agertu ez bazaizkio ere.

Euskararen bando berria Bortzirietan

MIKEL MENDIZABAL / IRUÑA

Bortzirietako Euskal Herriak duen zonarik euskaldunenetakoa dugu. Arantzan, Igantzin eta Etxalarren euskaldunen kopurua % 90 gaintzen du eta Lesaka eta Beran kopurua franko jaisten bada ere, bietan % 65 aise gaintzen da. Datu hauek positibo samarrak dira, baina euskararen aldeko borrokak aurrera segitzen du, eta borroka honek sortu du iskanbila azken aldi honetan inguruan.

Edozein herrik, zonak edo estatutik bere hizkuntza normalizatu ikusi nahi badu, derrigorrezkoa du bere instituzioek hizkuntza horretan lan egitea, eta horrexegatik Bortzirietako Euskara Zerbitzua saiatu da bertako udalen funtzionamendua euskaraz izaten. Baina ideia hau martxan jartzeak nahiko arazo sortu ditu azken aldi honetan Bera herrian, jendea edo agian instituzioak ez daudelako prestatuak gizarte euskaldun batean bizitzeko.

«Jendearen euskararekiko atxekimendua oso ona dela azaltzen digute estatistikek» dio David Anaute Arantzako udaletxean egoitza duen Bortzirietako Euskara Zerbitzukoak, «gizarte munduan ordea, euskararen erabilpena oso baztertuta dagoela ikusten dugu. Komunikabideak erdaldunak dira gehienbat, publizitatea, lan mundua... Eta guzti hau kaleko erabileran nabari da, jende gehienak erdaraz egiten baitu kateak». Administrazioak ere, erdal ereduari jarraitu izan dio gehien-gehienetan, azken urteotan zerbait aldatzen hasi bada ere.

BI FILOSOFIA EZBERDIN Jauzi edo desoreka hau moldatu nahian, «oso nabaria erdararen alde», udal ordenantza egin beharra planteatu zen Euskara Mankomunitatean. Honela bi filosofia oso ezberdinak nabarmendu ziren, bata herri txiki-kientzat, hau da, Arantza, Igantzi eta Etxalarrentzat, «herri hauek, euskara hutsezko funtzionamendua lortzeko», eta bestea herri handientzat, alegia, Lesaka eta Berarentzat, «kontuan izanik bertako euskaldunen kopurua». Hemen helburua euskaraz funtzionatzea izan zen.

Legeak eskuan izanik martxan hasi ziren lanean. Bandoak Udalaren maila desberdinetan hitz egiten du, alegia, zein hizkera erabili behar den barneko funtzionamenduan, zein hizkera jendearekiko tratuan, administrazioarekiko harremanetan, udalerria eta beste hainbat arlotan. Egiteko orduan, Orrio, Lasarte, Hernani, Irun eta beste zenbait herriko ereduak kopia ziren, «ez zen ezer asmatu», azpimarratu du Davidek. Duela urte t'erdizirriborrea egiten hasi zela eta, jendea ideiak eskatu zitzaizkion hainbat lekutan, herrietan, udaletan, taldeetan... Eztabaida prozesu tipikoa izan da, luzea, hamaika buelta eman dira, azkenean testu batera iristeko, Bortzirietako Mankomunitateak onartu duena.

Bera egindako udalbatza, ordea, bi alegazio aurkeztu ziren, bata ordenantza onartzearen aurka eta bestea aldatzearen alde, eta Mankomunitateak aurkeztutakoa ez zen onartu. Horrek sortu du polemika.



Berako udalbatza ordenantzen aurkako bi mozio aurkeztu ziren.

«Ez dute proposamena ulertu»

M.M. / IRUÑA

■ Prozesuak iraun zuen bitartean, ez zen kontrako iritzirik izan, inork kezkarik azaldu gabe, David Anautek dioenez. Berako udalbatza, ordea, bi proposamen jaso ziren, bata ordenantza onartzearen aurka eta bestea aldatzearen alde. Lehenengoa Herrialde taldeak aurkeztu zuen, «ordenantzak dauden bezala aprobaten badira, euskara eza gutzen ez duten beratar askoren interesei erasotzen ahal zaielako». Manuel Iriarte alkatearen taldearen iritziz, «ordenantza

berriaz aztertu behar da, elebitasunaren formularen alde egin, gure hizkuntza berreskuratu, honela urte gutxi barru, euskara Euskal Herriko herritarren hizkuntza izateko». EAren ustez, gehiago informatu behar da eta alegazio epea sei hiletara handitzea eskatu du. Talde hau, alegazioan, ordenantza hauen kontra agertu da, «herritarren eta udal administrazioaren arteko harremanaren aurka doalako». EAk urtea amaitu baino lehen beste testu bat egitea proposatu du.

David euskara teknikariaren esanetan, «sorpresa petrala» izan

da iskanbila guzti hau. «Guk ez genuen espero horrelakorik gertatuko zitzaigunik, besteak beste, ordenantza hauek inoren aurka ez dutelako egiten». «Ez dute gure proposamena ongi ulertu» azaldu du. Bide horretatik doa une honetan Euskararen Zerbitzuaren lana, jendea eta taldeak informatzeko, «edonork diskutitzen ahal baitu gurekin nahi duena». Hala ere, okerrera herritarren artean sortu ahal den «mesfidantza» dela dio Davidek. «Ordenantzak herritar guztiak kontuan izan baiditu ere, beti sortzen dute halako susmo txarra».



Arantzan du egoitza Bortzirietako Mankomunitateak.

Roman Kosecki

futbolaria

Roman Koseckik gustukoa du haragi ona. Xerra, saiheski eta solomo franko jan ditu Iruñean, baina ez diote gosea ase, eta Liga amaitzeaz dagoela argi azaldu du Osasunak eskeintzen dion haragia

ez dela asko. Tenerife, Valencia eta Atletico Madrid poloniar haragizale txikia fitxatu nahian dabiltza, eta jokalaria bere manager gizenaren aholkuaren esperoan dago noren eskeintza onartuko duen erabakitzeko.

«Haragi ona gustatzen zait»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Roman Kosecki gizon azkarra da. Berak dioenez horixe da bere birtuterik handiena, eta Iruñean zinez azkarra dela argi eta garbi erakutsi du. Liga hastear zegoela ailegatu zen Taxoarera, eta liga amaitzeaz dagoela argi dago heldu den urtean Sadarretik at ariko dela. Bere managera gaur ailegatuko da Iruñera, eta poloniar rockzaleak horren laguntzaz erabakiko du Valentzia, Madril edo Tenerife aldera joaten den. Berak nahiago luke Madrilerantz abiatu —Jan Urban bere taldekideak hori ez egitea gomendatu badio ere— baina erabakigarria izanen da managerak ematen dion aholkua. Aurki izanen dugu erabaki horren berri, eta bitartean 'Nafarkaria-k' Iruñean eman diuen bederatzi hilabetei buruz hitz egin du berarekin. Txorkatila lesio bat dela medio igandean ez du Burgosen jokatzetik izanen, eta beraz, ez du berriro ere elastiko gorria jantziko.

EGUNKARIA.— Zein da zure birtuterik handiena?

ROMAN KOSECKI.— Azkarra naiz, oso azkarra, eta hori gustatzen zait.

EGUNKARIA.— Eta akatsik handiena?

KOSECKI.— Hori besteek esan beharko dute. Ni partidu guztietan ongi jokatzen saiatzen naiz, eta hori oso garrantzitsua da.

EGUNKARIA.— Iruñera ailegatu zinen behin eta berriz aipatu zen 'poloniar frontea', baina azkenean fronte horrek ez ditu espero ziren emaitzak lortu. Zer gertatu da?

KOSECKI.— Janek arazo fisikoak izan ditu, baina nire ustez aurrerari trebea da. Poloniako selekzioan behin baino gehiagotan elkarrekin jokatu dugu, eta elkarrekin oso ongi aritzen ginen.



Osasunako elastikoarekin azken agurra.

JOXE LACALLE

EGUNKARIA.— Zein da Osasunaren hutsunerik nabariena?

KOSECKI.— Nik ongi jokatzekeo erdilari onak behar ditut. Nire azkartasunari etekina atera ahal izateko, haien pase luzeak behar ditut, eta Osasunaren erdilari on bakar bat dugu, Martin Gonzalez. Beste batzuk baditugu, J. J. Pascual eta Jose Mari esate baterako. Zenbait urte barru jokalaria onak izango dira, baina oraindik gazteak dira. Niretzat hori izan da hutsunerik nabariena, nire jokoan eragin zuzena eduki duelako.

EGUNKARIA.— Zein da Osasunako jokalaririk hoberena?

KOSECKI.— Roberto.

EGUNKARIA.— Zer moduz moldatu zara jokalaria gorritxoekin?

KOSECKI.— Beraiekin ez dut inolako arazorik izan. Guztiekin harreman ona izan dut, eta nirekin

oso ongi portatu dira.

EGUNKARIA.— Eta Ezkurra lehendakariarekin?

KOSECKI.— Nik ez daukat nire lehendakariarekin inolako arazorik. Berarekin oso harreman ona daukat.

EGUNKARIA.— Zer da 1.006 artikulua?

KOSECKI.— Ez daukat oso argi.

EGUNKARIA.— Zer deritzozu Osasunako zalegoari?

KOSECKI.— Nirekin oso ongi portatu dira, baina egia esateko Osasunaren zaleak ez dira asko, 12.000 edo 13.000 besterik ez. Turkian gehiago ziren, eta urduritasun handiagoa eragiten zuen horrek. Nire ustez han guztia askoz zailagoa zen, taldeak kopa eta liga irabazteko borrokatzen zuen eta.

EGUNKARIA.— Zer-nolako harremana izan duzu kazetariekin?

KOSECKI.— Kazetariak ere nirekin oso ongi portatu dira. Asko hitz egin dute niri buruz, eta hori ona da. Komunikabideetan garrantzi handia ematen zaio kirolari, eta hori ongi dago.

EGUNKARIA.— Denboraldi hasieran Osasunako zaletu, jokalaria, zuzendari eta entrenatzailearen helburua, eta zurea ere, UEFA jokatzea zen. Azkenean promozioa saihestea besterik ez duzue lortu. Zer gertatu da?

KOSECKI.— Urte honetan ongi jokatu dugu, eta ezer txarrik egon denik ez dut uste, arazo bakarra zorte txarra izan da. Zorte hobea izan bagenu orain UEFA jokatzeaz geundek.

EGUNKARIA.— Kirol kontuak alde batera utziz, gustatu al zaizu Iruñea?

KOSECKI.— Hiri txikia da, eta hemen lasai-lasai bizi naiz. Ta-

Nik ongi jokatzekeo erdilari onak behar ditut, nere azkartasunaz baliatzekeo, eta Osasunaren erdilari on bakarra dago: Martin Gonzalez».

berna asko daude, eta jendea beti kalean dago. Hori asko gustatzen zait. Gaztelu plaza asko gustatzen zait. Dena den, jokalariek ezin dugu edan, eta ez dut tabernez gozatzerik izan.

EGUNKARIA.— Zer da Iruñean gehien gustatzen zaizuna?

KOSECKI.— Hemen haragi pilo bat jaten da, eta hori asko gustatzen zait, asko gustatzen zait haragi ona.

EGUNKARIA.— Zein erretegi gomendatuko zenieke irakurleei?

KOSECKI.— Ignacio oso ongi dago, eta Pamplona hotelean jatea asko gustatzen zait.

EGUNKARIA.— Poloniatik Turkiara, Turkiako ligatik Espainiako ligara. Espainiako ligatik nora?

EGUNKARIA.— Egun nire helburua Atletico Madriler joatea da, edo bestela Osasuna baino handiagoa den beste talde batera. Turkiar liga poloniarra baino hobea da, eta espainiarra turkiarra baino hobea. Aldaketa handiak izan ditut, eta aldaketa gehiago egiteko denbora franko itxaron nahi dut. Dena den, Italiako liga jokatzea gustatuko litzaidake.

EGUNKARIA.— Atletico de Madrid, Tenerife ala Valencia?

KOSECKI.— Nik nahiago nuke Madriler joan, baina nire managera etorri arte ez dut ezer erabakiko.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

